

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezeroekin **harreman eraginkor**ak lortzeko, zehatz-mehatz ezagutu behar ditugu bezeroen beharrianak horrela gure balio-proposamenak helarazteko. Horretarako, gure bezeroekiko harremana oso **pertsonala eta gertukoa** izango da. Beraien konfidantza irabazteko ondorengo ekintzak landuko ditugu:

- Bezeroak eskatzen duen **zerbitzu espezifiko**a eskaintzea, dena bere beharretara disenatuta dagoena. Horrekin batera, kontsumitzailearekin **harreman zuzena** izatea, fideltasun-lotura sor dadin.
- Edozein unetan **informazio osoa** ematea, aurrekontu bat emateko edota edozein zalantza argitzeko. Horretarako web-orriaren eta sare sozialen bidez komunikatuko gara, gaur egun beharrezko komunikabide kanalak baitira.
- **2 urteko garantia** eskainiko diegu egindako zerbitzu guztiei.
- Bezeroaki edozein zerbitzu eskatzerakoan, lan **denbora ekonomizatzea; hau da, ahalik eta arinen zerbitzua bideratzea**. Bezeroak etotzerakoan, ahalik eta azkarren atenditzea.

